# Iraganeko kezkak gogora ekarri ditu 'Orbanak' eleberriak

## PELLO LIZARRALDEK **LEHENENGO PERTSONA** ERABILI DU NARRATZAILE GISA AURRENEKOZ

"Orain dela 56 urtetik idazten dudana zalantzatik abiatzen da eta zalantza du helburu nagusi", dio egileak

OIHAN VITORIA

DONOSTIA. Orbanak betiko estali ditu Pello Lizarraldek. Zumarragako idazleak iraganeko kezkak jaso ditu *Orbanak* (Erein) izenburupean argitaratu duen azken nobelan. "Txiki-txikitako estanpak jorratu ditut eta bizipen guztiak nireak ez diren arren, haurtzaroan presente izan nituen. Funtsean, bizitza luzea erakusten du liburuak", zehaztu zuen atzo egile gipuzkoarrak Donostian eginiko aurkezpen ekitaldian.

Horrenbeste eleberri plazaratzen den honetan, Lizarraldek zail ikusten du bere proposamen berria definitzea: "Eskaini dezakedanaz pentsatzen jarriz gero, lanak izango nituzke idatzi dudanaren erakargarritasuna erakusteko. Hori dela eta, hobe dut onartzea azken nobela honetan aurrekoetan zegoena dagoela, kapitulu bat besterik ez diodala erantsi, alegia" argudiatu zuen.

Edonola ere, *Orbanak* liburuak baditu berritasunak teknika narratiboei erreparatuz gero. Alde batetik, Lizarraldek aurreneko aldiz erabili du lehenengo pertsonan mintzo den norbait narratzaile gisa. "Esperimentu polita eta aberasgarria izan da. Nire iritziz, beste tonu eta ahots mundutarrago eskaintzen dio irakurleari", adierazi zuen. Bestalde, oraingoan istorioaren egitura bideratzen duen ispilu txiki batez baliatu da. Hori horrela, bi ahots daude liburuaren baitan: iheslariaren arrastoaren atzetik dabilena (lehenengo pertsonan) eta iheslariaren ikuspuntutik jasotakoa (hirugarren pertsonan).

Pello Lizarralde bere estiloari fidela izan da. Ez dio hutsik egin orain arte jorratutako idazkerari eta nobelagintza gorabeheratsua baztertu egin du. Bere eleberrietan ohikoa den legez, *Orbanak*en istorioa hari baten jarraipena da. "Urteetan zehar burutik kendu ezinik eduki ditudan irudi batzuek eragina izan dute idatzi hau sortzerako garaian. *Iragaitzaz* liburua bukatu nuenean konturatu nintzen bide horretatik ezin nuela aurrera egin. Soka hori ezin nuen gehiago estutu. Beraz, airean utzi nituen hainbat konturi tiraka eraiki dut azken lana", azpimarratu zuen ospedun eleberrigileak. Liburuak aurreko nobela batean jatorria badu ere, "bortxatu gabe eta berez" sortutako zerbait izan dela nabarmendu zuen.

Idazketarekin oso zorrotza da egilea, baina estilo beraren gainetik idazlearen nahia, grina eta anbizioa lehenesten ditu. Anekdota gutxikoa da bere literatura eta nobelak paisaiaren barruan hartzen du. Pertsonaiek zeharkatzen dituzten paisaia eta lekuen deskribapenek indarra hartu dute irakurlea toki horietan barneratzeko asmoarekin.

**IDAZKETA DOSIFIKATUA** Askotan, informazioa ezkutatzeko edo tanta-tantaka emateko joera duela aitortu zuen idazleak. Dena den, "irakurlea azkarra" dela eta "idazten ez dena ere liburuaren parte" dela zehaztu zuen. Halaber, laburtzeko joera hori "arriskutsua" izan daitekeela gaineratu zuen: "Istorioan efektu positibo zein negatiboa izan dezake eta ikusleari nahasmena eragin diezaioke".

Pello Lizarraldek ibilbide luzea darama euskal literaturgintzan. 56 urterekin zazpi eleberri argitaratu ditu eta beste hainbeste bidean geratu dira. Gehienak lau eta sei urte bitarteko epean idatzi ditu, 1978tik hasi eta 2012. urtera arte. Guztietatik esanguratsuenak *Sargori* (1994) eta *Larrepetit* (2003) liburuak dira. Azken honek, gainera, Euskadi Literatura saria erdietsi zuen duela bederatzi urte.



Pello Lizarralde idazlea, atzo, Donostiako Alde Zaharrean. ARGAZKIA: RUBEN PLAZA



## Ainhoa Arteta debuta en el Teatro Real

MADRID. La soprano Ainhoa Arteta debutó ayer en el Teatro Real con el protagonista femenino de *Cyrano de Bergerac* por enfermedad de Sondra Radvanovsky. El debut operístico de la cantante tolosarra en el Real, escenario que se le había resistido durante su carrera, estaba previsto para abril de próximo año, en el papel de Donna Elvira, en el *Don Giovanni*, pero la baja de Radvanovsky ha precipitado su estreno. FOTO: EFE

### MÚSICA › El concierto de Manolo García se retrasa a noviembre

El concierto de Manolo García programado para el próximo día 16 en el Kursaal se celebrará finalmente el 28 de noviembre. Las actuaciones previstas para mayo y principios de junio de la gira de presentación de su trabajo *Los días intactos*, entre las que se incluía la cita de Donostia, quedaron suspendidas por una operación de urgencia del cantante. Las entradas adquiridas para el día 16 serán válidas para la nueva fecha sin necesidad de cambios. Quienes no vayan a asistir al concierto en su nueva fecha, podrán solicitar el importe de sus entradas en las taquillas o en las oficinas de la Fundación Kursaal antes del 29 de junio. ›N.G.

### MÚSICA › La Orquesta de Euskadi ofrece hoy un taller didáctico

Un centenar de personas de las asociaciones integradas en FEVAS (Federación Vasca de Asociaciones a Favor de las Personas con Discapacidad Intelectual) podrán disfrutar hoy en la sede de la Orquesta Sinfónica de Euskadi en Miramon, de un taller didáctico y un concierto con *Sheherazade... y otras voces* como argumento principal. Con esta iniciativa la federación y la orquesta pretenden acercar esta disciplina artística a las personas con discapacidad intelectual y ampliar sus oportunidades de participar de forma más activa en la vida cultural. ›N.G.

### CINE › El plazo de presentación a Kimuak acaba el 1 de junio

El viernes 1 de junio se cerrará el plazo de presentación de cortometrajes para la edición 2012 del programa Kimuak. Este proyecto, organizado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y la Fundación Filmoteca Vasca, tiene como objeto la promoción y distribución de cortometrajes realizados o producidos en la CAV. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se ha constituido un comité de selección independiente formado por cinco profesionales y expertos del mundo del cine (Maialen Beloki, Josemi Beltrán, Pilar García Elegido, Edurne Ormazabal y Ángel Sala), que emitirá su fallo el lunes 11 de junio. ›N.G.